

ERAKUNDEAREN DATUAK (eskatzen diren 5 eremuak bete mesedez)

Datu hauek eta praktika onen fitxa betetzerakoan, baimena ematen duzu goian agertzen diren eremuak eta betetako praktika onen fitxa Euskaliteko webgunean argitaratzera, modu irekian zabaltzeko daitezela.

1. Erakundearen izena:	VICOMTECH
2. Sektorea:	☐ Hezkuntza ☐ Industria ☐ Osasuna ☒ (X) Zerbitzuak ☐ Administrazio publikoa ☐ Gizarte ekintza
3. Langile kopurua:	235
4. Webgunea:	https://www.vicomtech.org/eu/
5. Erakundearen jardueraren deskribapena: (produktu eta zerbitzu nagusiak, merkatua, bezero motak...):	Ikerketa aplikatuko zentro bat gara, eta teknologia digitaletan espezializatuta gaude. Ikertzen dugu eta teknologia garatzen dugu enprekin, beste zentro batzuekin eta unibertsitateekin elkarlanean, teknologia transferituz gure ingurunean inpaktu positibo bat eragiteko. Teknologia digitaletan espezializatuta gaude, honako hauei loturik: Visual Computing & Interaction eta Artificial Intelligence. Zentro Teknologiko bat gara, irabazi-asmorik gabeko Fundazio pribatu gisa eratua. Gure xede nagusia da gure inguruneke enpresa eta erakundeekin Ikerketa Aplikatuko, Garapeneko eta Berrikuntzako beharrei erantzutea, erronka ekonomiko eta sozial berriei aurre egiteko aukera izan dezaten, haien lehiakortasuna hobetuz merkatu global honetan.

Harremanetarako datuak

Eremu hauek hautazkoak dira. Datuak betetzen badituzu, webgunean azalduko dira bere horretan. Horrela, zure praktika interesgarria suertatu zaion erakundea zurekin harremanetan jarri ahal izango da:

Solaskidearen izen-abizenak:	Nora Gurrutxaga Eskisabel
Helbide elektronikoa:	administracion@vicomtech.org
Telefonoa:	943 30 92 30

PRAKTIKA ONAREN AZALPEN LABURRA

1. Praktika onaren titulua:	Euskara sustatzeko ikerketa proiektuak
2. Praktika onaren azalpena: Zer da? Zertan datza? Nondik dator? Zeintzuk dira onurak, lortu diren emaitzak?	Alde batetik, Vicomtech-ek euskara sustatzeko ikerketa proiektuak garatzeko barneko baliabideak jartzen ditu. Hizkuntzaren teknologiak, Inteligentzia Artifizialari esker, bilakaera handia izaten ari da. Enpresa globalek "Alexa" edo "Siri" bezalako laguntzaile birtualak garatu izanak areagotu baino ez du egiten euskara bezalako hizkuntza gutxitu batentzat presentzia ezaren mehatxua. Vicomtech-ek adimen artifizialean oinarritutako bi konponbide garatu eta eskuragarri ditu. BATUA.eus Batua.eus-en helburua, Euskararen itzulpenari aplikatutako adimen artifizialean oinarritutako konponbidea gizarteari eskaintzea da. Berau erabiliz, itzulpen automatikoko gaitasunak eta motorra hobetzeko datuak sortzea lortzen da. Euskarazko-teknologiaren garapena bizkortzea, hizkuntza nagusien mailan jartzeko xedearekin, eta, horrela, enpresa-sarera eta gizartera transferitzea bultzatzea, zirkulu birtuoso baten bidez, non teknologia hobetu egiten den erabileraren bidez. Vicomtechek doako online itzultzailea eskeintzen du, herritarrei irekia, testuak itzultzeko. Garrantzitsua da azpimarratzea testu-itzultzailea dela, ez delako hitzak itzultzeko hiztegia. Hizkuntza naturaletik oso gertu dauden testuinguru-itzulpenak egitea ahalbidetuko duten ereduak sortzea du helburu. https://batua.eus IDAZLE.eus Idazle.eus Euskararen ulermenari aplikatutako adimen artifizialean oinarritutako konponbidea da, EITB bezalako entitateek edukien Euskarazko transkripzio eta azpidatziak sortzeko aukera ematen duena modu automatikoan. Ondoren transkripzio hauek jasan ditzaketen zuzenketa eta aldaketan bidez teknologia bera hobetzeko bidea irekiaz. Idazle.eus plataforma erabiliz, euskara, hizkuntza nagusien mailan jartzea ahalbidetzen da, eta, horrela, enpresa-sarera eta gizartera transferitzea bultzatzen, zirkulu birtuoso baten bidez, non teknologia

hobetu egiten den haien erabileraren bidez.
<https://platform.idazle.eus>

Bestetik, Vicomtech-en xedea ikerketa aplikatua egitea da, eta gure teknologiekin lotutako merkatu-aukera ikusirik, oinarri teknologikoko enpresa berri bat sortzeko bultzada egin dugu, TREBE, hain zuzen.

TREBE Vicomtech-ek sortutako enpresa berri bat da (spin-off), bere jarduera hizkuntzaren teknologietan oinarritutako zerbitzuak garatu eta hornitzea delarik.

Gaur egun lantzen dituen teknologiak itzulpen automatikoa, transkripzio eta azpitolazio automatikoa eta ahotsaren sintesia eta klonazioa dira, hizkuntza koofizialei arreta berezia eskainiz (gaztelania, euskara, katalana eta galiziera).

TREBEk hainbat API eskaintzen ditugu, administrazio publikoek, enpresek eta erakundeek zerbitzu pertsonalizatuak izan ditzaten teknologia horiek eguneroko prozesuetan integratzeko, eraginkorrak izan daitezten.

PRAKTIKA ONAREN INGURUKO DOKUMENTAZIOA, IRUDIAK, GRAFIKAK...

(Hemen itsatsi tresna/dinamika/praktikaren irudiak, dokumentuak, grafikak, eta abar.)

KUDEAKETA AURRERATUA
EUSKALIT
GESTIÓN AVANZADA



KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA